

BBVA FUNDAZIOA: IKERKETA ZIENTIFIKO PROIEKTURAKO LAGUNTZEN DEIALDIA 2021

ARLOKA LAGUNTZEN EMATEA

ARLOA	EGIKARITZE EPEA	FINANTZAKETA	ESKAERAREN HIZKUNTZA
Matematika	3 urte	4 laguntza 150.000 €koa bakoitza	Ahal bada Ingelesez
Klima-Aldaketa eta Ekologia eta Kontserbazioaren Biologia	2 urte + 1 urteko luzapena (beharrizana egiaztatuz gero)	4 laguntza 125.000 €koa bakoitza	Gaztelera
Biomedikuntza: 2 azpiarlotu: - Onkologia oinarrizkoa eta translazionala - SARS-CoV-2 modelizazio epidemiologikoa	2 urte + 1 urteko luzapena (beharrizana egiaztatuz gero)	<u>Onkologia oinarrizkoa eta translazionala:</u> 4 laguntza 150.000 €koa bakoitza <u>SARS-CoV-2 Modelizazio epidemiologikoa:</u> 2 laguntza 100.000 €koa bakoitza	Ahal bada Ingelesez
Gizarte-Zientziak	12-18 hilabete	5 laguntza 50.000 €koa bakoitza	Gaztelera
Filosofia	12-18 hilabete	20 laguntza 30.000 €koa bakoitza	Gaztelera

Ikertzaile nagusiak bete beharreko baldintzak:

- a. Espainiar nazionalitatea edo bizileku iraunkorra edo iraupen luzekoa Espainian izatea.
- b. Doktore titulua.
- c. UPV/EHUrekin funtzionario, estatutu edo kontratu lotura izatea eskaera aurkeztu duen une beretik eta proiektuaren egikaritze epe osoan.
- d. Eskari bakoitzak ikertzaile nagusi bakar bat izan dezake.
- e. Ikertzaile nagusia ezin izango da agertu eskari batean baino gehiagotan.

Ikertaldeko hideek bete beharreko baldintzak:

- a. UPV/EHUrekin funtzionario, estatutu edo kontratu lotura izatea eskaera aurkeztean.

- b. Obra edo zerbitzu (proiektu zehatzerako) modalitateagaz kontratatutako IKPek ezingo dute deialdi honetako ikertaldeetan parte hartu.
- c. Eskaera aurkezten denean lotura izatea edozein herrialdetako irabazi asmorik gabeko eta ikerketara dedikatzen diren beste unibertsitate edo ikastegi publiko edo pribatu batzuekin. **Pertsona horiek UPV/EHU n aurkeztu beharko dute haien jatorrizko erakundeak emandako idatzizko baimena.**
- d. Ikertzaile bera ezin izango da agertu eskari batean baino gehiagotan .

OHAR GARRANTZITSUA: Laguntza gauzatu bitartean ikertaldeko ikertzaileei UPV/EHUrekin duten lotura amaitzen bazaie, **ezin** izango dute gasturik egotzi aipatutako egoeran dauden bitartean. Ikertzaile nagusiak eman beharko dio ikerketaren arloko errektoreordetzari proiektua gauzatu bitartean gertatzen diren bajen berri.

Dokumentazioa:

Honako agiriak erantsi beharko zaizkio eskaerari:

- a. Ikertzaile nagusiaren NANaren edo pasaportearen fotokopia.
- b. Ikertzaile nagusiaren bizileku ziurtagiria, bizileku iraunkorreko txartela edo atzeritarren nortasun agiria, beti ere indarrean daudenak.
- c. Proiektuaren memoria zientifikoa formatu askean eta atal guztiak osatuta.
- d. Taldekide guztien CVa. Onartutako ereduak deialdian bertan agertzen dena eta CVN-a izango dira.
- e. Biomedikuntzako proiektuen kasuan bakarrik, UPV/EHUko Etika Batzordearen aldeko txostena.
- f. Datu pertsonalen tratamendua onartzeko dokumentua (Jarraibideak 8. orrialdean, 6B urratsa) **Agiri honek UPV/EHUko ikerketaren arloko errektoreordearen sinadura izan beharko du.**

Aurrekontua prestatzeko jarraibideak:

Hurrengoak onartuko dituzte gastu hautagarritzat:

- a. Ekipamendu zientifiko-tekniko inbentariagarria, ikerkuntza proiekturako beharrezkoa izanez gero, eta erosketaren beharrezkoa egiaztatuz.
- b. Langilegoaren kontratazioa (Doktorego aurreko eta doktore ondoko kontratuak)
- c. Ikertaldeko kide diren atzerriko ikertzaileen egotaldiak Espainian edo ikertaldeko kide diren espainiar ikertzaileenak beste herrialde batzuetan.
- d. Bidaia gastuak (ikertaldeko kideenak edo proiekturako kontratatutako pertsonal ikertzailearenak).
- e. Material suntsikorra, proiektuari bideratutakoa.
- f. Proiektua egikaritzeko beharrezko gainerako beste gastuak.

UPV/EHUko ikertzaile nagusiek aurkeztutako eskaerek zeharkako kostuei dagokien %5a jaso beharko dute aurrekontuan.

OHAR GARRANTZITSUA: Irakasle-ikertzaileek ezin izango dute nomina bidez ordainsaririk jaso deialdi honen kontura.

Eskaerak aurkezteko epea:

2022ko martxoaren 15eko 18:00ak arte.

Eskaerak UPV/EHU n aurkezteko prozedura:

EPEMUGA	ARDURADUNA	IZAPIDEA
2022ko otsailak 23	Ikertzaile nagusia	"I. eranskina"ren bidalketa, proposatutako ikertaldeak berrikusteko: convocatorias.dgi@ehu.eus
2022ko martxoak 03 Data horretatik aurrera jasotakoei ez zaie bermatuko lege ordezkariaren oneritzia behar duen dokumentazioa epe barruan bueltatzea.	Ikertzaile nagusia	Aurrekontua eta <u>Datu pertsonalen tratamendua onartzeko dokumentua</u> , legezko ordezkariak sinatuta , bidali hona convocatorias.dgi@ehu.eus . Fase honetan ez da memoria zientifikoa bidali beharko.
2022ko martxoaren 15eko 18:00ak arte	Ikertzaile nagusia	Eskaera osoa bidali, gorde dezagun: convocatorias.dgi@ehu.eus helbidera.

OHAR GARRANTZITSUA: Ikertzaile nagusiak izango du eskaera aurkezteko ardura, ezarritako epean eta moduan, BBVA [Fundazioaren aplikazioaren bitartez](#).

UPV/EHUren datuak eskaera orria betetzeko:

Hauk dira erakundearen (UPV/EHU) datuak eskaera betetzeko:

- Legezko ordezkaria: José Luis Martín González
- Kargua: Ikerketaren arloko errektoreordea
- IFK: Q4818001B
- Egoitza soziala: Sarriena auzoa, z/g
- Posta kodea: 48940
- Herria: Leioa
- Harremanetarako helbide elektronikoa: convocatorias.dgi@ehu.eus

FUNDACION BBVAreko harremana: ayudas-investigacion@bbva.es

UPV/EHUreko harremana:

- Telefonoa: 94 601 80 08
- E-maila: convocatorias.dgi@ehu.eus

Informazio gehiagorako:

<https://www.fbbva.es/ayudas/ayudas-proyectos-investigacion-cientifica-2021/>